

2019-20 ikasturtean, Lanbide Heziketa egin zuten gizonak emakumeak baino ia bi aldiz gehiago izan ziren Euskal AEn

Hezkuntza Sailak 120.000 ikasleri baino gehiagori eman zizkien bekak eta laguntzak, hirutik bati

Eustatek emandako datuen arabera, 2019-20 ikasturtean Euskal AEn Lanbide Heziketaren hiru modalitateak (oinarrizkoa, erdi-mailakoa eta goi-mailakoa) egin zituzten ikasleen artean gizon-kopurua emakume-kopuruaren ia bikoitza izan zen. Patroia hiru modalitateetan errepikatzen da, eta ratioak hauek dira: 2,6 gizon emakume bakoitzeko Oinarrizko Lanbide Heziketan eta 1,9 Goi-mailako Lanbide Heziketan.

2019-20 ikasturtean, Euskal AEko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzek, 419.875 ikasle izan zituzten guztira, eta matrikulak % 0,3 egin zuen gora aurreko ikasturtearekin alderatuta. Matrikulen % 93 Erregimen Orokorreko Irakaskuntzetan egin ziren, eta gainerako % 7a Erregimen Bereziko Irakaskuntzetan. 2018-19 ikasturtearekin alderatuta, Erregimen Orokorreko Irakaskuntzetan % 0,4ko igoera eman zen eta Erregimen Bereziko Irakaskuntzetan % 0,2ko beherakada. Hala ere, nabarmentzekoa da Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleen kopuruak gora egin duela, % 3,2 eta % 2,6, hurrenez hurren. Era berean, nabarmena da Helduen Hezkuntzan erregistratutako % 10eko igoera, azken lau ikasturteetako beheranzko joera irauliz.

Euskal AEko unibertsitatez kanpoko ikasleak, irakaskuntza mailaren arabera, lurralde historikoari jarraiki. 2019/20 ikasturtea

	Guztira	Araba/Álava	Bizkaia	Gipuzkoa	Aurreko ikasturtearekiko aldakuntza (%)
GUZTIRA	419.875	68.769	209.940	141.166	0,3
Araubide Oorokorreko Irakaskuntzak	389.344	63.600	192.673	133.071	0,4
Haur Hezkuntza	85.239	14.264	42.324	28.651	-2,3
Lehen Hezkuntza	130.041	21.105	65.253	43.683	-0,8
Derrigorrezko Bigarren hezkuntza	86.304	13.239	43.083	29.982	1,4
Oinarrizko Lanbide Heziketa	4.700	629	2.843	1.228	2,8
Batxilergoa	31.234	4.875	15.665	10.694	3,2
Erdi mailako Lanbide Heziketa	15.102	2.372	6.973	5.757	2,5
Goi mailako Lanbide Heziketa	22.016	3.284	9.859	8.873	2,6
Hezkuntza berezia	1.468	266	768	434	0,2
Helduen Hezkuntza	13.240	3.566	5.905	3.769	10,0
Araubide Bereziko Irakaskuntzak	30.531	5.169	17.267	8.095	-0,2
Hizkuntza Irakaskuntzak	26.537	4.251	15.068	7.218	0,5
Musika Irakaskuntzak	2.646	465	1.383	798	0,1
Dantza Irakaskuntzak	137	115	22	.	15,1
Arte Plastiko eta Diseinu Irakaskuntzak	584	338	183	63	9,2
Kirol Irakaskuntzak	572	.	556	16	-33,4
Arte Dramatikoa Irakaskuntzak	55	.	55	.	17,0

Iturria: Eustat. Eskola-jardueraren estatistika

Eskuragarri zegoen eskaintzak baldintzatu zuen Erregimen Bereziko Irakaskuntzetako ikasleen lurralde-banaketa. Hizkuntzen eta musikaren irakaskuntzan eskaintza zabala izan zen eta banaketa Erregimen Orokorreko Irakaskuntzen antzekoa, baina gainerako ikasketek lurralde batean bildu zituzten ikasleak.

Ikastetxearen titulartasunari dagokionez, Erregimen Orokorreko Irakaskuntzetako matrikula apur bat handiagoa izan zen ikastetxe publikoetan ikastetxe pribatuetan baino: % 53 eta % 47. Horrek erakusten duenez, termino absolutuetan, ia 20.000 ikasle gehiago daude irakaskuntza publikoan.

D eredua finkatzen ari da derrigorrezko mailetan


Hizkuntza-ereduari dagokionez, Erregimen Orokorreko Irakaskuntzetan D ereduaren goranzko joerari eutsi zitzaion 2019-20 ikasturtean; ikasleen % 68k euskara aukeratu zuen komunikazio-hizkuntza gisa. Hala ere, aldeak egon ziren hezkuntza-mailen artean: derrigorrezko mailetan –Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza–, D ereduko matrikula % 70etik gorakoa izan zen; aitzitik, Lanbide Heziketako ikasleen laurdenak baino gutxiagok egin zituen ikasketak hizkuntza-modalitate horretan.

20 urtetik beherakoan artean, Lanbide Heziketak, alternatiba gisa, gora egiten du adinarekin batera

2019-20 ikasturtean derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondoko ikasketak egin zituzten 20 urtetik beherakoan artean, % 76 Batxilergoan matrikulatu zen, eta gainerako % 24k erdi-mailako Lanbide Heziketa aukeratu zuen.

Maila horietako matrikulen proportzioan adinaren arabera bat ikusi zen: 16 urteko ikasleentzat erdi-mailako lanbide-irakaskuntzak aukera minoritarioa izan arren, aukera horrek presentzia handiagoa hartu zuen adinak gora egin ahala.

Derrigorrezko irakaskuntza ondoko bigarren hezkuntzaren matrikulatutako ikasleak, adinaren arabera (%) 2019/20 ikasturtea




Iturria: Eustat. Eskola-jardueraren estatistika

Maila horietan, sexuaren arabera banaketa askotarikoa izan zen. Batxilergoan, emakumeak gehiengoa izan ziren (% 55), eta erdi-mailako Lanbide Heziketan, berriz, gizonak emakumeen bikoitza izan ziren, gutxi gorabehera. Gainera, genero-desberdintasunak hauteman ziren Batxilergoko modalitateen aukeraketan. Orientazio zientifikoa izan ezik, horretan sexuen arabera banaketa paritarioa izan baitzen, emakumeen presentzia nagusia izan zen, Arteen modalitatean batez ere. Azken horretan, lau matrikulatik hiru emakumeenak izan ziren.

Era berean, erdi-mailako Lanbide Heziketaren eskaintza sailkatzen den lanbide-arlo gehienek desorekak izan zituzten ikasleen sexuaren arabera banaketan. Hala, irudi pertsonalarekin eta pertsonen zaintzarekin erlazionatutako familietan emakumeen ehunekoa % 75etik gorakoa izan zen; aitzitik, sei familia erabat maskulinizatuta egon ziren, eta emakumeen presentzia ia anekdotikoa izan zen, emakumeak ikasle guztien % 10 baino gutxiago izan baitziren: Informatika eta komunikazioak, Fabrikazio mekanikoa, Itsas-Arrantza, Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak, Elektrizitatea eta elektronika eta Instalazioa eta mantentze-lanak.

Batxilergoko eta Erdi mailako Lanbide Heziketako ikasleak, modalitate edo familien eta sexuaren arabera (%). 2019/20 ikasturtea



Iturria: Eustat. Eskola-jardueraren estatistika

Unibertsitatez kanpoko goi-mailako hezkuntzan, goi-mailako Lanbide Heziketako matrikulak % 2,6 egin zuen gora 2018-2019 ikasturtearekin alderatuta. Emakumeen proportzioak, bai maila osoan, bai lanbide-arlo desberdinetan, erdi-mailako Lanbide Heziketan antzemandako eredu berari jarraitu zion.

Ikasleen herenak bekak eta ikasteko laguntzak jaso zituen

2019-20 ikasturtean, Euskal AEko Administrazio Publikoak erregimen orokorreko irakaskuntzei emandako beken eta laguntzen zenbatekoa 51 milioi eurotik gorakoa izan zen, eta 120.489 ikaslek jaso zituzten, guztien % 32ak.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen kolektiboa izan zen ikasle bekadunen proportzio handiena izan zuena (% 59), eta, ondoren, Oinarrizko Lanbide Heziketa, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (bost ikasletik bik jaso zituzten ikasteko-laguntzak) egin zituztenak.

Derrigorrezko mailek helburu horretara bideratutako partida ekonomikoaren % 83 berenganatu zuten. Lehen Hezkuntzak jaso zuen zenbatekorik handiena, 22,3 milioi euro, hau da, guztizkoaren % 43. Haur Hezkuntzak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak, bakoitzak, 10 milioi euro inguru jaso zituen.

Bekadun bakoitzak batez beste 426 euroko laguntza jaso zuen, baina zenbateko hori ez zen bera izan egindako irakaskuntzaren arabera: 258 euro Oinarrizko Lanbide Heziketan eta 631 euro Haur Hezkuntzan.

Ikastetxe publikoek hartu zuten beka eta laguntzetarako aurrekontuaren bi heren inguru. Ikastetxe pribatuetan matrikulatutako ikasleentzako bekak 17,6 milioi eurokoak izan ziren. Ikasle bekadunen proportzioa handiagoa izan zen ikastetxe publikoetan (% 40) ikastetxe pribatuetan baino (% 24). Arrakala hori bereziki nabarmena izan zen Lehen Hezkuntzan; izan ere, ikastetxe publikoetako ikasleen erdiek laguntzak jaso zituzten bitartean, ikastetxe pribatuetan matrikulatutakoen laurdenek baino ez zituzten jaso. Erlazioa alderantzizkoa izan zen Lanbide Heziketako ikasketetan, laguntzak jaso zituzten ikasleen proportzioa handiagoa izan baitzen zentro pribatuetan, ikastetxe publikoen eta pribatuen arteko aldeak txikiagoak izan ziren arren.

Ikasleen erdiak jantoki-zerbitzua erabili zuen

Erregimen Orokorreko Irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleen erdiak eskola-jantokian bazkaldu zuen. Bizkaian, hamarretik seik erabili zuten zerbitzu hori; Gipuzkoan eta Araban, berriz, % 43k eta % 34k, hurrenez hurren. Ez zen alde handirik ikusi titulartasun publikoko eta pribatuko ikastetxeen artean.

Eskola-garraioa 53.966 ikaslek erabili zuten, hau da, ikasle guztien % 14k. Berriz ere, zerbitzua gehiago eskatu zen Bizkaian (% 17) Gipuzkoan (% 12) eta Araban (% 10) baino. Oraingo honetan, aldeak egon ziren ikastetxe-motaren arabera: garraioaren erabilera 7 puntu handiagoa izan zen ikastetxe pribatuetako ikasleen artean ikastetxe publikoetako artean baino (% 18 eta % 11, hurrenez hurren).

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62